



*Prensa oharra*

## **EROSKI-K ETA UNESCO ETXEAK HITZARMEN BAT EGIN DUTE GARAPEN IRAUNKORRAREN HELBURUAK HEDATZEKO**

- **Bi entitateek lankidetzaz hitzarmena egin dute elkarri laguntzeko Garapen Iraunkorrerako 'Agenda 2030'ak dituen helburuak hedatzen; NBEko Estatu Kideek bere egina dute agenda hori.**
- **EROSKI Osasunaren eta Iraunkortasunaren alde hartuak dituen konpromisoen harira dator hitzarmen hau; asmoa da bizi kalitatea hobetzen laguntzea eta gizartean garapen iraunkorra indartzea**

**Bilbo, 2018ko apirilaren 26a.**- [UNESCO Etxeak](#) eta [EROSKI](#) lankidetzaz hitzarmen bat sinatu dute [Garapen Iraunkorraren Helburuak](#) hedatzeko. Atzo sinatu zuten UNESCO Etxearen egoitzan, Bizkaiko hiriburuan. Lankidetzaz hitzarmen hori izenpetzeko, hor izan dira Arantzazu Acha UNESCO Etxeko zuzendaria eta Alejandro Martinez Berriochoa EROSKIren Osasun eta Iraunkortasunaren arloko zuzendaria, Garapen Iraunkorraren Helburuei buruz egindako sentsibilizazio eta hedapen kanpainan.

Garapen Iraunkorra sustatzeko *Agenda 2030*ek hamazazpi helburu ditu, eta NBEko Estatu Kideek onartuak dituzte Garapen Iraunkorrari buruz 2015ean egin zen Munduko goi bileran. Helburu nagusia da pobrezia desagerraraztea, planeta babestea eta mundu guztiaren oparotasuna bermatzea.

Lankidetzaz hitzarmenean datoz garapen iraunkorraren helburua hedatzeko EROSKI hartuak dituen konpromisoak. *"Gure ustez, lankidetzaz honek ondorio baikorrak izango ditu kontsumitzaileen artean, kontsumo arduratsu eta iraunkorrari begira"*, esan du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasunaren arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

UNESCO Etxeak, berriz, konpromisoa hartu du EROSKI Osasun eta Iraunkortasun arloan hartuak dituen ardatz estrategikoak babesteko, kooperatibaren foroetan eta ekimenetan parte hartuz. *"Lanean ari gara bakezko kultura baten alde, eta, eskubideak eta betebeharrak dituen aldetik, baita gizakiaren garapen iraunkorraren alde ere. EROSKIrekin aritzea lankidetzan oso baikorra da helburuak hedatzeko eta betetzea erdiesteko"*, esan du Arantzazu Achak, UNESCO Etxeko zuzendariak.

### **EROSKIri buruz**

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.651 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, hor ditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash&carry-ak eta, horrez gain, gasolindegia, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak. Sei milioi Bezero-Bazkide baino gehiago ditu, eta 33.816 kooperatiba-bazkide eta langile-bazkide.

### **UNESCO Etxeari buruz**

UNESCO Etxea irabazi asmorik ez duen erakunde independente bat da, 1991n eratua eta egoitza Bilbon duena. 1988tik harreman ofizialen estatusa lortu zuen Nazio Batuen Erakundearekin, Heziketa, Zientzia eta Kultura bultzatzeko. 2002ko uztailan, aholkulari estatusa eman zioten Nazio Batuen Kontseilu Ekonomiko eta Sozialean. Horrez gain, 1995etik, Nazio Batuen Informazio Publikoaren Sailari dago atxikia UNESCO Etxea. Era berean, 2003. urtetik, UNESCOri atxikiak diren Liburutegien sareko kidea da haren Dokumentazio Zentroa.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)